



Arartekoaren 2019R-1187-18 Ebazpena, 2019ko otsailaren 19koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezan etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaeran atzera egin izana adierazteko ebazpena.

Aurrekariak

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularra den herritar batek Arartekora jo zuen eta erakunde honen esku-hartzea eskatu zuen, Lanbideren ebazpen batekin ados ez zegoela eta. Horren bidez, Lanbidek adierazi zuen herritarrak atzera egin zuela etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaeran.
2. Kexagileak etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko eskatu zuen Barakaldoko bulegoan. Horretarako, Lanbideren langileek eskatutako dokumentazioa aurkeztu zuen. Aurkeztu beharreko dokumentuei dagokienez, besteak beste, etxebizitzaren alokairu-kontratua –eredu normalizatuan– aurkeztu behar zuela esan zioten.

Hala ere, geroago, Lanbideko zuzendari nagusiak honako dokumentazio hau aurkezteko errekeritu zion:

“Berilagunen etxebizitzaren alokairua izenpetu du eskatzaileak (zuzenean). Hala eta guztiz ere, eskatzailearekin sinatutako kontratua ez da etxebizitzaren alokairuarekin bat datorrela, baina gela alokatzeko . Hori dela eta, behar bezala bere bete behar duzu eta eredu zuzena, gela alokatzea entregatu.

Bestalde, kontratua etxebizitzaren errentamendua balitz, etxebizitzaren beste bizilagun batek erregistratuta dagoenaren kalitatea erakutsi behar duzu.

Erreserbatu ordaindutako 300 euroko zenbatekoaren arabera, zenbateko horren zatiak alokairuari dagozkion zehaztu eta desagregatu behar duzu, eta egungo gastuak ordaintzeko (elektrizitatea, ura...)

(...)

(xxx) kalean kokatutako ohiko egoitza utzi zenuenaren arrazoia zehaztu eta frogatu behar duzu, baita erregistratutako erregistro baten bidez, jabetza horietan bizi den egoiliarra erregistratzen den unean.

Azken hiru hilabeteko telefono mugikorraren fakturak kopiak eman behar dituzu (aurrez ordaindutakoa bada, azken kargua jaso ondoren).





Eskatzailea gaur egun erregistratuta dagoen jabetza-erregistroaren oharra (xxx kalea, xxx) jabetza frogatzeko....".(sic)

3. Lanbideko zuzendari nagusiaren errekerimendua ikusita, kexagileak berriz jo zuen Lanbideren bulegora, eta, bulegoko langileek lagunduta, errekeritutako dokumentazioa aurkeztu zuen (erregistro-zenbakia Lanbiden: 2018/48642).

Hala ere, etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaeran atzera egin zuela adierazteko ebazpena eman zuen Lanbidek, honako arrazoi hauengatik:

"Eskatzaileak etxebizitzaren alokairu eredu sinatu bat eskuratu ondoren. Bizilagunen zuzeneko zuzeneko inskripzioan (Zuzenean bidez) entregatu berri du. Hala eta guztiz ere, eskatzailearekin sinatutako kontratua ez da etxebizitzaren alokairuarekin bat datorrela, baina gela alokatzeko. Horrez gain, eskatzaileak beste pertsona batekin bizi (erregistroan agertzen den bezala). Kontratua etxebizitzaren alokairu bat bada, ez da argi eta garbi geratzen beste bazkide bizidun bezala.

Erakusten ez duen bitartean, eskatzaileak elektrizitatearen eta uraren kostuaren zenbatekoa ordaindu behar duen zenbatekoa edo portzentajea.

Ez da argitu ere zergatik ere zergatik utzi zuen etxearen lehen etxea, (xxx) kaleko gelan, bereziki, ama hori dela eta, aipatutako etxebizitzaren matrikulatuta dagoenean. Zentzu honetan, ez da zehazten zer portzentaje jabetza eskatzaileak gaur egun jabetza horretan"(sic)

Egiaztapen horiekin ados ez zegoenez, kexagileak azaldu zuen Barakaldoko Lanbide bulegoan ez zitzaizela eman gela bat alokatzeari buruzko kontratuaren eredurik; hala ere, bi aldiz eman zioten etxebizitzaren alokairu-kontratuaren eredia, baita azpierretoa kontratuarena ere.

Gainera, azaldu zuen adostutako errentaren zenbatekoa 300 € zela, eta Lanbide bulegoan aurkeztu zuen alokairu-kontratuaren atzealdean espresuki jasota geratu zela *"argiaren eta uraren gastuak ez daudela barne logelaren alokairu-prezioan."*

Azkenik, bere amak gozamina duen ondasun higiezin baten % 10aren titularra zela, eta ama orain dela gutxi erroldatu zela eta etxebizitza okupatu zuela jakinarazi zuen.

4. Aurkeztutako kexari izapide egokia emate aldera, Arartekoak lankidetzeta-eskaera bidali zion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaeran atzera egin izana adierazteko arrazoi zehatzak eta kexagileak emandako azalpenak ez onartzeko arrazoiak azaltzeko eskatu zuen.





Hain zuzen ere, Arartekoak kexaren gaiarekin zerikusia duten zazpi puntu zehatz azaltzea nahi zuen.

5. Arartekoak ez zuen erantzunik jaso informazio-eskaera horri lotuta, eta, hortaz, sailari errekerimendu bat helarazi eta berariaz erantzun behar zuela gogorarazi zion.
6. Informazio-eskaerari erantzunez, Lanbideko zuzendari nagusiaren idazki bat jaso genuen erakunde honen erregistroan. Horren bidez, jakinarazi zion Arartekoari eutsiko ziola etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaeran atzera egitea adierazteko erabakiari. Izan ere, Arartekoari bidalitako erantzunak ebazpenean jasotako arrazoiketa bakarrik jasotzen du. Gauzak horrela, Lanbidetik, kexa izapidetzeko onartu den unean espedientean zegoena baino informazio gehiagorik ez da jaso.

Hitz batez, Lanbideko zuzendari nagusiak etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaeran atzera egitea adierazteko ebazpenaren edukia kopianatu zuen bakarrik, hitzez hitz.

7. Beraz, uste dugunez beharrezko egitateak eta zuzenbideko oinarriak ditugula, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Lehenik, Arartekoak kezkatuta dagoela adierazi nahi luke, Lanbidek –legezko justifikaziorik edo errekerimendua behar bezala arrazoi dezakeen arauzko euskarririk gabe– dokumentazioa behin eta berriz eskatzen duelako.

Hain zuzen, kexa-espediente honetan, Lanbidek, besteak beste, honako dokumentu hauek eskatu zituen: etxebizitzako ohiko gastuen egiaztagiria (ura, argia, gasa...), telefono mugikorraren azken hiru hilabeteetako fakturen kopia, eta Jabetza Erregistroko ohar soila, kexagilea bizi den etxebizitzari dagokionez.

Aipatu denez, Arartekoaren iritziz, ez dago Lanbideren eskakizuna –eskatzaileek etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaera izapidetu ahal izateko dokumentazio hori aurkezteko– justifika dezakeen oinarri juridikorik.

Gai hori Arartekoak aztertu egin du dagoeneko bere Diagnostiko-txostenean, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituzten¹.

¹ **Arartekoa.** Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituztena, 2017. 1.6. puntua Hemen eskuragarri: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4199_1.pdf

Hain zuzen ere, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salak 1997ko uztailaren 7an emandako epaia aipatu da. Epaia horretan, espresuki azaltzen da laugarren zuzenbide-oinarrian:

...

- *"...la Administración no puede arbitrariamente exigir cualquier documentación, sino aquella que sea indispensable para fijar los datos en base a los cuales ha de dictarse la resolución"*²

2. Ildo horretan, Etxebizitzaren prestazio osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren (aurrerantzean, 2/2010 Dekretua) 4. artikulua honako hau ezartzen du:

- *"etxebizitzarekin loturiko premiazat hartuko dira etxebizitzaren edo ohiko bitokiaren **alokairu-gastuak**, edozein modalitatetan, hots, errentamendua, azpierreantamendua, baterako alokairua, ostatu hartzea eta gelen alokairua."*³

Hain zuzen, ez da ezer esaten etxebizitzaren ohiko erabilerak eragiten dituen ohiko gastuak egiaztatzeari buruz. Neurri handi batean, etxebizitzarako prestazio osagarriaren helburua etxebizitza alokairuan hartzeko gastuei bakarrik aurre egitea delako, kontratu modalitate desberdinetan; hortaz, kanpo geratzen da hornikuntzak ordaintzea.

Ildo horretan, 2/2010 Dekretuak ere ez du ezartzen telefonia mugikorrek sortutako gastuak egiaztatzeko beharrik.

Hori guztia dela eta, Arartekoaren iritziz, Lanbidek etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaera izapidetzeko ezinbestekoa ez den dokumentazioa aurkezteko eskatu zion kexagileari.

3. Kexagileak aurkeztutako kontratu ereduari dagokionez, Lanbide ez dago ados sinatutako dokumentuarekin. Hain zuzen ere, eskaeran atzera egitea adierazi zuen, ulertu zuelako aurkeztutako kontratu ereduak ez zetozeela bat lehendik zegoen harremanaren izaera juridikoarekin.

Arartekoaren iritziz, adierazpen horrek esan nahi du Lanbidek kexagilearen egoitza-egoera ezagutzen zuela nahitaez, modu ez-zuzenean bada ere, eta, hala ere, aurkeztutako kontratu ereduak kontratu-harremanaren izaera juridikoaren edukia baino garrantzitsuagoa zela erabaki zuen.

Arartekoak uste du kontratu horri emandako forma ez dela erabakigarria, etxebizitzaren ohiko gastuak egiaztatzen badira eta kexagileak emandako gainerako informazioarekin osatu ahal bada.

² Auzitegi Gorenaren. Roj: Auzitegi Gorenaren 4804/1997 Epaia. ECLI:ES:TS:1997:4804.

³ Letra lodia Arartekoak jarri du.

Oso ondo dakienez, logela bat alokairuan hartzeko kontratuaren ezaugarria hauxe da: etxebizitza batean dagoen gela bat lagatzea, pertsona bakar batek prezio baten truke denbora zehatz batean erabil dezan eta goza dezan, gehienetan, etxebizitzako sukaldea eta bainugela modu partekatuan erabiltzeko eskubidearekin.

Kexagileak sinatutako kontratuaren ezaugarri propioak ikusita, ez du ematen kontratuaren xedea logelaren alokairua baino gehiago denik.

Gainera, etxebizitzen merkatuan alokairu-araubidean sartzeko eskatzen den prezio neurrigabea dela eta, nekez pentsa daiteke hileko 300 € nahikoak direla ondasun higiezin oso bat alokatzeko.

Are gehiago, espedientean jasotako dokumentazioaren arabera, kexagileak sinatutako alokairu-kontratuaren ereduaren atzealdeak espresuki zehazten du:

- *“Por parte del propietario de la vivienda (...) le alquilo una habitación, letra –B- con derecho a cocina y baño. Los gastos de luz y agua no entran en el precio de alquiler de la habitación.”*

Azaldutako guztia dela eta, kexagileari emandako eredia etxebizitzaren alokairu-kontratuarena bazen ere, logela alokairuan hartzeko kontratua zen, gastuen zenbatekoa eta kontratu-harremanaren izaera juridikoa behar bezala justifikatuta.

4. Lanbide orain dela gutxi bat etorri da iritzi horrekin, 1228/2018/QC zenbakia duen kexa-espedientea aztertutako antzeko kasu batean. Zehazki, Ararteko honi erantzuteko idazkian, Lanbideko zuzendari nagusiak honako hau adierazi zuen:

- *“Espedienteko dokumentazioa aztertu ondoren, argi geratu da kontratuaren xedea gela bat dela, eta ez etxebizitza bat. Kontratu mota horrek –zein Kode Zibilak arautzen baitu– ez du eskatzen higiezinaren jabeak etxebizitzan bertan bizitzea. Gainera, aurkeztutako agiriek adostutako hilerokoa ordaintzeko betebeharra bete egin dela erakusten dute. Horregatik guztiagatik, aintzat hartu behar dugu errekurtsua, eta indargabetu Etxebizitzarako Prestazio Osagarria aldi baterako eten zuen ebazpen errekurtsua”.*

Laburbilduz, Lanbidek emandako kontratuen inprimaki normalizatuak eskatzaileentzat eta eskubideen titularrentzat lagungarriak izan badaitezke ere, ez dira erabakigarriak sinatutako kontratuan jasotako betebeharren izaera juridikoa eta adostutako ordainen erregimena aztertzeko orduan. Ezin da ahaztu eredu normalizatuak erabiltzea borondatezkoa dela; hortaz, eskatzaileek informazio hori dokumentazio osagarriarekin ordezkatu eta osa dezakete.

5. Edonola ere, kexagileak berriz esan zuen dagokion Lanbide bulegoan hainbat aldiz eman zioten eredu formalizatuak bete zuela. Izan ere, etxebizitza-alokairuari dagokion inprimaki normalizatuaz gain, etxebizitzaren zati baten azpierrementendu-kontratuari dagokion inprimakia eman zioten; hori azkenean ez zuen entregatu.



Horri dagokionez, Arartekoak hauxe jakinarazi nahi dio Lanbideri, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53.1 f) artikularekin bat eginez:

“...administrazio-prozedura batean interesdun direnek honako eskubide hauek dituzte:

(...)

f) Informazioa eta aholkuak lortzea indarrean dauden xedapenen arabera proiektu, jarduketa edo eskaerak egitean bete beharreko betekizun juridiko eta teknikoei buruz.”

Adierazpen hori frogatzea zaila dela onartuta ere, Arartekoak beharrezkotzat jotzen du kontu horri buruz Diagnostiko-txostenean, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituenean,⁴ egindako gomendioa gogoraraztea.

Hain zuzen ere, Arartekoak berriz gogorarazi du Lanbideren betebeharra – etxebizitzaren ohiko erabilerari dagokionez, kontratu modalitate desberdinak daudela informatzeko eta orientabideak emateko–, horrela, eskubide subjektiboak aitortzeko eskaera izapidetzea baldintzatu dezaketen nahasteak saihesteko.

6. Lehen azaldutako guztia dela eta, ez dirudi arrazoizkoa eskatzaileak **errekeritu zaion dokumentazioa aurkeztu ondoren, Lanbidek** etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaeran **atzera egin izana adieraztea**.

Ararteko honen iritziz, Lanbidek ezin dezake alde atera utzi dokumentuak horretarako emandako epearen barruan aurkeztu direnik.

Gogoratu behar da prozedura bat artxibatzea salbuespenezkoa dela. Hortaz, Lanbidek prozedura amaitu arte izapidetu behar du, salbuespen honekin: eskaerak eta aurkeztutako dokumentuek modu argian, zehatzean eta zalantzarik gabe egiaztatzen badute eskatutakoak ez dituela betetzen araudiak eskatzen dituen aurrekontu materialak, hau da, eskaerak ez baditu eskaera modura kontuan hartzeko irizpideak betetzen, eta ez bada akatsa zuzendu.

Gauzak horrela, Arartekoaren iritziz, Lanbidek jarraitu behar izan zuen etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko espedientea izapidetzen, kexagileak eskaera zuzentzeko errekerimenduari epean eta forman erantzun ziola egiaztatu zelako.

7. Azkenik, Arartekoak helarazi nahi dio Lanbideri oso garrantzitsua dela sailari bidaltzen zaizkion lankidetzak- eskaeretan eskatzen den informazioa ematea. Ararteko honen jarduketan aintzat hartu behar den kontraesanaren printzipioak,

⁴ **Arartekoa**. Diagnostiko-txostena, ... proposamenak jasotzen dituen, *op.cit.* Ondorioak eta gomendioak. 1.2 atala



dena den, jarduketa aurrera daraman administrazio publikoak eskatzaileek zalantzan jartzen duten erabakia hartzea eragin duten arrazoibide juridikoak ezagutzea eskatzen du.

Hitz batez, erakundeak eskatutako informaziorik ezak oztopatu egiten du Ararteko honi legez esleitutako jarduketa.

Kasu honetan, lankidetzeta-eskaera eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren iritzia ematea eskatzen zuten zazpi kontu jasotzen zituen errekerimendu bat bidali ondoren, Lanbidek etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko eskaeran atzera egin izana deklaratu zuen ebazpenaren edukia hitzez hitz eta labur-labur helarazi zuen, espedientea izapidetzera onartu zenetik bertan jasota zegoena baino informazio garrantzitsu gehiagorik eman gabe.

8. Azken batean, Arartekoaren iritziz, Lanbidek ardura handiagoz jokatu beharko zukeen kexagileak azaldutako gertaerak –dokumentuak erakunde horren bulegoan aurkeztu ziren– egiaztatzean. Horrela, kontratuaren eredian diru-zenbatekoa aipatzeak, baita atzealdean *"logela bat –B letrakoa– alokairuan ematen diot"* berariaz adierazteak ere, pentsarazten dute kexagileak sinatutako kontratuaren izaera juridikoa logela alokairuan hartzeko kontratua zela, eta ez etxebizitza errentan hartzekoa, Lanbidek hasieran jo zuen bezala.

Ondorioz, Arartekoak ez du uste beste kontratu baten eredu normalizatua emateak, Lanbidek egiaztapen gehiagorik egin gabe, nahitaez etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko eskaeran atzera egitea adieraztea ekarri behar duenik. Hori dela eta, Arartekoaren iritziz, hain garrantzitsua den erabakia hartu aurretik, Lanbidek gogoratu behar zuen kontratuaren benetako izaera juridikoa logela alokairuan hartzea zela, eta eskaera izapidetzen jarraitu.

Edonola ere, Arartekoak berriz esan nahi du Lanbidek eskatutako dokumentazioa, ur, argi, gas eta telefoniaren gastuei buruzkoa, ez dela ezinbestekoa etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaera bat ebazteko.

Horregatik guztiagatik, Lanbidek jarraitu behar izan zuen eskaera izapidetzen, 2/2010 Dekretuan jasotako baldintzak betetzea egiaztatzeko behar ziren elementuak bazituelako.

9. Hitz batez, Arartekoak egiaztatu du, kexa-espediente hau bideratu ondoren, kexagileak zegokion epean eman zuela errekeritu zitzaion dokumentazioa, eta justifikatu zituela etxebizitzarekin zerikusia duten beharrianak. Hain zuzen ere, alokairu-kontratua aurkeztu zuen, baita etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaera izapidetzeko beharrezkoa zen informazio guztia ere.

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Arartekoak honako gomendio hau egin nahi du:





GOMENDIOA

Arartekoak gomendatzen dio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari berriz azter dezan Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpena, etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaeran atzera egitea adierazten duena, kexagileak errekeritu zitzaion dokumentazioa zegokion epean eta forman aurkeztu zuela egiaztatuta, prestazioa jasotzeko baldintzak betetzea egiaztatzeko nahikoa elementu daudela ikusita.

Edonola ere, Arartekoak gogorarazten dio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari eskatu dakizkien agiri, txosten edo argibideak lehentasunez eta presaz eman behar dizkiola Arartekoari.

